

EDITORIALA

Irakurle: esku artean duzun ELHUYAR aldizkariaren ale hau berezia da. Alde batetik, ale arruntak baino mardulagoa delako, bikoiztu du ia ale arrunt baten orrialde-kopurua, eta bestetik alea gai soil bat azaltzeari zuzentzen zaiolako, monografikoa delako alegia.

Nahiz eta ale hau ELHUYAR aldizkariaren ale monografiko bakarra izan ez, (Ikus ELHUYAR 17. zenbakia) nolabaiteko etendura dakar ELHUYAR aldizkariaren lerro editorialean.

Gure aldizkariak duen irakurlegoa bai interes zientifikoa-ren eta bai profesionalaren aldetik dibertsifikatua dagoela ezagutzen dugu. Interes desberdin horiei erantzun nahiean argitaratzen ditugun lanetan nabaria da gaien barietatea eta berauek erabiltzeko maila desberdinen onarpena. Bide honetan gure lehenengo alean zera genion: "Hemen ikusiko dituzuen lanak ez dira denak maila berdinekoak, gaurko egoeran ikastoletako haurrei begira lanegitea beharrezko bada ere ez bait daiteke irakasleak gertatzeari edo ta profesionalek egu-

neroko lanetan dituzten premiei begiratu gabe gerorako aurrerabiderik sor".

Eta ELHUYAR aldizkariaren bigarren urratsari hasiera eman genionean asmo berdinarekin ihardun genuen (ELHUYAR 7,1): "Bestetik, eta oraingoz Elhuyar-en biltzen diren adar desberdinak separatzerik ez dagoenez, ohizko sailak bereziki lantzea eta modu egokiago batez azaltzeko bidea egin nahi dugu. OINARRIZKO IRAKAS KUNTZARAKO MATERIALA izeneko sailan eskolen mundu zabalera zuzendutako lanak argitaratuko gemituzke; TEKNIKA ETA TEKNOLOGIA izenekoan, berriz, industri munduari dagozkionak; ZIENTZI GAI OROKORRAK izenekoan aktualitateko gaitzientifikoen berri ematen saiatuko ginateke eta azkenik, UNIBERTSITATEA izenekoan goi-mailako ikasketei eta ikerketei dagozkien lanek ikusiko dute argia"

17. alean gaiaren goi-mailako interes zientifikoak justifikatzen bazuen lerro editorialaren etendura, begien aurrean duzun ale hau Darwin-ek bere "On the Origin of Species by means of Natural Selection" liburua plaza

ratu zuenean eboluzioaren teoriaren oinarriak landuz, zientziaren filosofiaren eta erligioaren munduan suposatu zuen dardarak urrats berri, oparo bezain emankorrari hasiera eman zion gizakia-
ren historiari. Dakusagun: "Zinez pentsatzen dut Copernico-ren teoria darwindarrarekin konpara daitেকেen aurreramendurik ez dela egin giza ezagumenduan.

Garai hartan bezala, zeinetan ikerketari inork ordurarte pentsa ez zezakeen eremu berriak ireki bait zitzaizkion; gaurko egunean, mendi baten gailura garaitu ondoren, lur berri eta zabalak dakusagu, zeinen ikerketarako milaka pertsona gutxi izango bait dira. Bizi organikoaren zientziaren bukaeran ez baino hasiera gaude zeren eta aurkikunde handi guztiak bezala etorkizunean eragin itzelak izango bait ditu, ikusmolde berria ematen bait digu eta, ororen gain, horizonte berriak zabaltzen bait dizkigu". (August Wersmann, "Veber die Berechtigung der Darwinschen theorie" 1868).

Eta "Giza ezagumenduaren aurrerapenaren historian, gizon batar batek emandako, eta hamaika froga independentez eta zuzenbide orotan zirikatutako teoriarik inoiz ez da gertatu Darwin-en eboluzioaren teoria bezain egia. Orain, inoiz baino gehiago, Otto zur Strassen-ek haretaz esan zuena, "Ezaguna zaigun guztia esfortzurik gabe elkarrosatzen da, ezker ez du kontraesaten" alegia, baieztatzen da" (Konrand Lorenz "Darwin hat recht gesehen", 1965)

Euskal kulturak, eta euskal zientziak, ezin zuen Darwin-en mendeurrenean harek merezi duen omenaldia egin gabe utzi. Eta helburu horrekin, aurtengo Udako Unibertsitatean emandako ikastaroen

fruitu dira ale honetan jasotzen ditugun artikuluko gehienak. Ikastaro haietarako bildutako materiala argitaratzea interesgarri irudituz zitzaigun eta horrela sortuz ale berezi honen idea.

Azkenik, amaitzeko, ELHUYAR aldizkariak etorkizunean ale monografiko gehiago argira ematea, gaiak honela eskatuko duenean, asmoa duela, eta aleok, baliabide ekonomikoak mugatuko dituen heinean, urteroko ale arruntetatik aparte izango direla jakinarari nahi dizuegu.

OHARRA: Orain arte, legalki, ELHUYAR aldizkaria "Real Sociedad Vascongada de Amigos del País" delakoa ren zientzi erakina izan da, gauntik aurrera berezko nortasuneko aldizkaria izango da ELHUYAR. Aldizkaria sortu zenean beharrezko babes legala jada esteko RSUAP-engan jatu zuen ELHUYAR taldeak, haren atekizabalik aurkituz eta haren laguntza estimazina lortuz.

ELHUYAR taldeak iazera legala lortu duen une honetan, bihotzez eskertu nahi dio RSUAP-i urte luze hauetan emandako laguntza eta babesa.